

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Asunto: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BATZARRA		

Batzarraren datuak:

Equna: 2016-12-01 Lekua: Santa Klara Jauregia. Ordua: 17:00-19:00

Bertaratutakoak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbistazu
Gizatiar: Olga Bolivar
Mujeres con Voz: Luciana Davies
Roda: Clara Lorenzo Quevedo
EH Bildu: Arantza Gutierrez Paz
Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana
EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas
GUK: Paula Amieva Clemente
Udal Talde Sozialista: Josefina García Palacio
Talde Popularra: Susana De Cos Yañez
ELA: Elvira Lemona Díaz
Berritzegune: Ana Sofía Gutierrez
Kontseiluburua: Keltse Eiguren Alberdi
Idazkaria: Idoia Eizmendi Aldasoro

Ez dira etorri:

Eskuz-Esku

Aztergai-zerrenda

- Aurreko batzarreko akta onartzea
- Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren (A 25) balorazioa
- Emakumeen Etxeari buruzko prozesua
- Berdintasunerako IV. Plana
- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aurreko batzarreko akta onartu da.

Berdintasunerako IV. Plana

Lehenik eta behin gai honi heltzea erabaki da, IV. Plana egitearen ardura daukan Oreak Sarea aholkularitza-enpresa batzarrera etorri baita.

Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du taldeek eta elkarteek IV. Planari egin gura dizkioten ekarpenak jasotzea dela aztergaien zerrendako puntu honen helburua.

Bilgune Feministak dio ezinezkoa izan zaiela batzarra egitea, astebeteko epea bakarrik eman zaielako. Beraz, ez dute ekarpenik ekarri.

Gizatiar, Mujeres con Voz, EH Bildu eta Gukek ekarpenak ekarri dituzte. Kasu batzuetan aldaketak planteatzen dituzte, beste batzuetan ekintza berriak, eta beste batzuetan ekintzei buruzko zalantzak dauzkate.

Ekarpen guztiak aztertu ondoren, berdintasun zinegotziak azaldu du aztertu egingo direla eta egokitzen jotzen direnak planean sartuko direla, eta arrazoiak azalduko direla. Azkenik, esan du ez dela abenduko osoko bilkurara eramango onartzeko; urtarrilean egitea aurreikusten da. Oraindik ez dakigu osoko bilkuran ala Gobernu Batzarrean onartuko den. Izan ere, berak gogoratzen duenaren arabera, berdintasun planak orain arte osoko bilkuran onartu dira, baina ez du zertan hala izan behar. Modu berean, azaldu du, Berdintasun Legea betez, plana onartu aurretik Emakundera bidali beharko dela, erakunde horrek txostena egin dezan.

Ordua ikusita, galde-eskeetara joatea erabaki da, eta gainerako gaiak Kontseiluaren hurrengo batzarrera atzeratu. Ez dago galde-eskaerarik eta batzarra amaitutzat eman da.

HURRENGO BATZARRA, URTARRILAREN 19an